



## UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA: ESTATUTUAK

Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak, 2016ko abenduaren 15ean egindako ohiko osoko bilkuran hasierako onarpena eman zion Urola Kostako Udal Elkartearen Estatutuen azken aldaketari. Horren ondotik, espedientea jendaurrean erakusgai jarri zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez (GAO 2016-12-29, 246. zk). Jendaurrean erakusgai jartzeko arauzko epean ez zen erreklamaziorik izan. Jarraian, batetik, estatutuen aldaketaren espedienteak Foru Aldundiaren aldeko txostena jaso zuen eta, bestetik, Udal Elkartea osatzen duten udalen gehiengoak onartu zuen.

Estatutu hauek, azken aldaketarekin, indarrean jarri ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oso osorik argitaratu eta hurrengo egunean (GAO, 2017-11-13, 216 zk.).

### AURKIBIDEA

#### I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua: Eratzea, izena eta egoitza
2. artikulua: Izaera juridikoa
3. artikulua: Antolaketa eta funtzionamendua
4. artikulua: Mankomunitatearen iraupena

#### II. KAPITULUA: XEDEA

5. artikulua: Udal Elkartearen helburuak

#### III. KAPITULUA: UDAL ELKARTEKO AGINTE-ORGANOAK

6. artikulua: Egitura organikoa

##### I. ATALA. BATZAR NAGUSIA

7. artikulua: Batzar Nagusia
8. artikulua: Batzar Nagusia eratzea eta berritzea
9. artikulua: Batzar Nagusiaren bilkurak
10. artikulua: Batzar Nagusiaren eskumenak

##### II. ATALA. ZUZENDARITZA BATZORDEA

11. artikulua: Zuzendaritza Batzordeko kide eta ordezkoen izendapena. Zuzendaritza Batzordea berritzea
12. artikulua: Zuzendaritza Batzordearen bilkurak
13. artikulua: Zuzendaritza Batzordearen eskumenak

##### III. ATALA. LEHENDAKARIA ETA LEHENDAKARIORDEA

14. artikulua: Udal Elkarteko lehendakaria eta lehendakariordea



15. artikulua: Lehendakariaren eskumenak

#### IV. ATALA. ORGANO AHOLKU EMAILEAK

16. artikulua: Lantaldeak

#### IV. KAPITULUA: LANGILEEN ERREGIMENA

17. artikulua: Udal Elkarteko langileak

18. artikulua: Idazkaritza

#### V. KAPITULUA. EKONOMIA ARAUBIDEA

19. artikulua: Aplikagarri den araubidea

20. artikulua: Ekonomia eta finantza baliabideak

21. artikulua: Mankomunitatearen finantzaketa

22. artikulua: Aurrekontuaren eta kontabilitatearen araubidea

#### VI. KAPITULUA: MANKOMUNITATEA HANDITZEA, BANANTZEA ETA DESEGITEA

23. artikulua: Mankomunitatea handitzea

24. artikulua: Udalerriak banantzea

25. artikulua: Udal Elkarteak desagitea

26. artikulua: Likidatzeko prozedura

#### VII. KAPITULUA: ESTATUTUEN ALDAKETA

27. artikulua: Estatutuen aldaketa

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

#### AZKEN XEDAPENA



## UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA: ESTATUTUAK

### I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

---

#### 1. artikulua: Eratzea, izena eta egoitza

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalerriek mankomunitatea osatzen dute, beren eskumenekoak diren eta Estatutu hauen 5. artikuluan adierazten diren zerbitzuak antolatu, kudeatu eta eskaintzeko.

Eratutako toki-erakundearen izena Urola Kostako Udal Elkarte / Mancomunidad Urola Kosta da eta legezko helbidea Zarautzen du, Urdaneta bidea 6an.

#### 2. artikulua: Izaera juridikoa

1. Erakunde publiko honek mankomunitate izaera du eta bere helburuak betetzeko nortasun eta gaitasun juridikoa ditu. Bere jarduna arautzen dute indarrean dauden xedapenek eta Estatutu hauek.
2. Udal Elkarteak Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru-arauek mankomunitateei aitortzen dizkieten ahalmen eta eskubideak izango ditu, bere eginkizunak burutzeko.

#### 3. artikulua: Antolaketa eta funtzionamendua

Udal Elkartearen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoa Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera gauzatuko da, eta horietan finkatzen ez diren alderdietarako honakoak hartuko dira kontuan: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; apirilaren 10eko 6/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak arautzen dituena, edo arau hori aldatzen dutenak; eta indarrean dauden eta toki erakundeei aplikagarri zaizkien beste lege-xedapen eta erregelamenduak.

#### 4. artikulua: Mankomunitatearen iraupena

Udal Elkartearen iraupena mugagabea da, Estatutu hauetan Udal Elkarte desegiteko ezartzen diren arrazoi eta prozedurari kalterik egin gabe.

## II. KAPITULUA: XEDEA

---

### 5. artikulua: Udal Elkartearen helburuak

Urola Kostako Udal Elkartearen helburu nagusia Udal Elkarteak osatzen duten udalerrien garapena eta udalerririk horietako biztanleen ongizatea lortzea da. Horretarako, Udal Elkarteak udalen eskumenekoak diren eta ondoren adierazten diren zerbitzu eta programak bideratu eta eskainiko ditu (era eksklusiboan nahiz osagarrian):

- Prestakuntza eta enpleguko programak: prestakuntza eta laneratzeko.
- Baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko programak.
- Enpresak sustatzeko eta enpresei laguntzeko zerbitzuak.
- Etxeetan, saltokietan, zerbitzuetan eta industrietan sortzen diren etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuak.
- Hondakinak tratatu eta desagerrarazteko zerbitzuak.
- Ingurumeneko informazio eta sentiberatze kanpainak.
- Eskualdean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.
- Eskualdeko turismoa sustatzeko ekimenak.

Horiekin batera, Udal Elkarteak udalen eskumenekoa den edozein zerbitzu eskaini ahal izango, artikulua honetan berariaz adierazi ez arren. Udal Elkartearen helburuak zabalteak Estatutuak aldatzea eskatuko du, 27. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

### III. KAPITULUA: UDAL ELKARTEKO AGINTE-ORGANOAK

---

#### 6. artikulua: Egitura organikoa

Udal Elkarreak honako aginte-organismoak ditu:

- Batzar Nagusia
- Zuzendaritza Batzordea
- Lehendakaria eta lehendakariordea
- Aginte organo osagarriak

#### I. ATALA. BATZAR NAGUSIA

#### 7. artikulua: Batzar Nagusia

1. Batzar Nagusia da Udal Elkarteke aginte-organismo gorena, eta garrantzia handieneko erabakiak eta akordioak hartzeko eskumenak dagozkie.
2. Batzar Nagusia osatuko du Udal Elkarrea osatzen duten udal guztietako zinegotzi guztiek eta buru lehendakaria izango da. Lehendakaria aurrerago adierazten den eran hautatuko da.

#### 8. artikulua: Batzar Nagusia eratzea eta berritzea

1. Udal Elkarrea osatzen duten udalak oso-osorik berritzen direnean, Batzar Nagusia eratuko da ekitaldi publikoan, egutegiko 45 eguneko epearen barruan, udalak eratu eta hurrengo egunetik hasita. Horretarako, jarduneko lehendakariak Batzar Nagusiaren ezohiko bilkura deituko du eta deialdia helaraziko die udalek izendatutako zinegotziei.
2. Adineko Mahaia eratuko da lehendabizi. Mahai hori osatuko du bertaratutako kideetatik zaharrenek eta gazteenak, eta buru lehendabizikoa izango da. Hori bideratzeko, udalek ziurtagiria bidaliko diote Udal Elkarreari zinegotzi kargua hartu duten pertsona guztien izen-abizenak eta adina adieraziz. Adineko Mahaiaren idazkari gisa jardungo du Udal Elkarteke idazkariak.
3. Bilkurara Udal Elkarteke udaletako zinegotzi guztiak, edo gutxienez gehiengo absolutua, bertaratuz gero, Adineko Mahaiko lehendakariak eratutzat joko du Udal Elkarrea.
4. Udal Elkarrea eratu ondoren, Batzar Nagusiak lehendakaria eta lehendakariordea hautatuko ditu, ezkutuko bozketaren bidez.

Lehendakari izateko hautagaiak aurkeztu behar dira bilkura baino berrogeita zortzi ordu lehenago. 11. artikuluan ezarritako prozedura jarraituz udalek batzordekide izateko proposatu dituzten zinegotziak izango dira lehendakariorde izateko hautagai.

Lehendabiziko bozketan lehendakaria hautatuko da. Boto gehien eskuratzen duen hautagaia lehendakari hautatua izango da. Berdinketa gertatzen bada, beste bozketak bat egingo da. Beste bozketak horretan lehendakari izateko hautagai izango dira aurreko bozketan berdinduta geratu direnak. Berdin jarraitzen badute, bietatik lehendakari hautatua izango da udal hauteskundeetan boto gehien (Udal Elkarrea osatzen duten udalerririk guztiak kontuan hartuz) eskuratu zituen alderdikoa hautagaia.

Ondoren, batzordekide bezala proposatuak izan direnen artean lehendakariordea hautatuko da. Lehendakariordea ez da izango lehendakariaren udal berekoa. Berdinketa gertatzen bada, beste bozketak

bat egingo da. Bigarren bozketa horretan hautagai izango dira aurreko bozketan berdinduta geratu direnak. Berdin jarraitzen badute, lehendakariorde hautatua izango da udal hauteskundeetan boto gehien (Udal Elkarteak osatzen duten udalerri guztiak kontuan hartuz) eskuratu zituen alderdiko hautagaia.

5. Bozketa amaituta, Adineko Mahaiak beren postuak hautatutako kideei utziko dizkio.
6. Agintaldia amaitu delako udal zinegotziak kargua uzten dutenean, kargu horrekin jarraituko dute Udal Elkarteak, bitarteko izaerarekin, Udal Elkarteak aginte-organoak eratu arte. Udalak berriro aurretik, zinegotzi batek kargua uzten duenean, kargugabetzen dutenean edo osoko bilkurako kide izateari uzten dionean, utzi egingo dio Udal Elkarteak Batzar Nagusiko kide izateari.

#### **9. artikulua:** Batzar Nagusiaren bilkurak

1. Batzar Nagusia osatuko dute lehendakariak, lehendakariordeak eta mankomunitatea osatzen duten udaletako ordezkariak. Batzar Nagusiko kide izango da, baita ere, mankomunitateko idazkaria, ahotsarekin baina hautespenik gabe. Halaber, beharrezko dela iritzitakoan mankomunitateko sail arduradunek ere parte hartu ahal izango dute bilkuretan, ahotsarekin baina hautespenik gabe.

2. Batzar Nagusia urtean behin bilduko da eta deialdia lehendakariak egingo du.

Ohiko bilkuren deialdia lehendakariak egingo du, gutxienez 5 laneguneko aurrerapenarekin. Deialdia mankomunitateko udaletako alkateei helaraziko zaie, bere udaleko zinegotziei bana diezaien.

3. Udal Elkartearen eta Batzar Nagusiko kideen komunikazioa errazteko eta paper kontsumoa ahalik eta gehien murrizteko bide telematikoak erabiliko dira, betiere arlo horretan indarrean dagoen araubidearekin bat etorriz.
4. Lehendakariak Batzar Nagusiaren ezohiko bilkurak deitu ahal izango ditu. Deialdia ohiko bilkuren aurrerapen berberarekin helaraziko da.

Bestalde, lehendakariak Batzar Nagusiaren bilkura deituko du Batzar Nagusiko kideen laurdenak (gutxienez), Zuzendaritza Batzordeko kideen gehiengoak edo mankomunitatea osatzen duten udaletako batek, udalbatzaren erabakiz, horrela eskatzen badio. Batzar Nagusiaren bilkura horren gai-zerrendan agertuko dira soilik eskatzaileek adierazitako gaiak. Ezohiko bilkura hori egingo da bi hilabeteko epearen barruan, eskabideari Udal Elkarteak sarrera-erregistroan sarrera ematen zaionetik hasita.

5. Batzar Nagusiaren ezohiko premiazko bilkura deituko du lehendakariak gaiaren larritasunak horrela eskatzen duenean.

Ezohiko premiazko bilkura deitutakoan, gai-zerrendako lehen gaia bilkuraren premiazkotasuna erabakitzea izango da. Organo horrek bilkura ez dela premiazkoa erabakitzen badu bilkura amaitutzat joko da, eta ezingo da inolako akordiorik hartu.

6. Nolanahi ere den, bilkuraren deialdiak honakoak adieraziko ditu: bilkuraren eguna, ordua, lekua eta aztertuko diren gaien zerrenda. Ezingo da erabakirik hartu gai-zerrendan berariaz adierazita ez dauden gaiak buruz, premiazko kasuetan izan ezik. Dena dela, organoak gai hori premiazkotzat jo beharko du aurretik, legezko kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin.
7. Bilkurak balioa izateko behar den quoruma honakoa da: zuzenbidez kide diren batzarkide guztien erdia gehi bat. Nahitaezkoa da lehendakaria (edo legezko ordezkaria) eta idazkaria (edo legezko ordezkaria) bertaratzea.

Bilkuraren deialdian adieraziko da bilkura lehen deialdian egiteko quorumik ez badago bigarren deialdia egingo dela, lehen deialdirako ezarritako ordua baino ordu erdi bat beranduago. Bigarren deialdian bilera egiteko legezko kide guztien herenak bertaratu behar du.

8. Kide anitzeko organo horren funtzionamenduari buruzko gainerako gorabeheratarako, toki erakundeen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoa ezartzen duen araubidea hartuko da kontuan.

#### **10. artikulua:** Batzar Nagusiaren eskumenak

1. Batzar Nagusiak honako eskumenak ditu:

- a) Estatutuak aldatzea, toki administrazioaren araubidean ezarritakoaren arabera.
- b) Udal Elkarteak desegitea, toki administrazioaren araubidean ezarritakoaren arabera.
- c) Udal Elkartean kide berriak onartzea edo banantzea onartzea.
- d) Aurrekontua eta aurrekontua betearazteko arauak onartzea, Toki Ogasunen Legeak ezarritakoaren arabera.
- e) Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzea.
- f) Udal Elkarteko udalek nahiz beste administrazioek eskuordetutako eskumenak onartzea.
- g) Aginte-organoak kontrolatu eta fiskalizatzea.

2. Erabakiak, arau orokor moduan, bertaratutako kideen gehiengo soilarekin hartuko dira. Berdinketa gertatzen bada, bozketa berriz egingo da, eta, berriz ere berdinketa gertatzen bada lehendakariaren kalitate botoak erabakiko du. Nola nahi ere den, beste gehiengo batzuk beharko dira toki administrazioen araubideak edo Estatutu hauek horrela eskatzen badute.

## **II. ATALA. ZUZENDARITZA BATZORDEA**

#### **11. artikulua:** Zuzendaritza Batzordeko kide eta ordezkoen izendapena. Zuzendaritza Batzordea berritzea.

1. Zuzendaritza Batzordea osatuko dute lehendakariak eta jarraian datorren prozedura honen bidez ateratzen den batzordekide kopuruak. Batzordekideetako bat lehendakariorde izango da. Hona hemen prozedura:

Udalek izendatuko dituzte batzordekideak, ondoko era honetan:

- 6.000 biztanle arteko udalerriek: 2 batzordekide
- 6.001 eta 12.000 biztanle bitarteko udalerriek: 3 batzordekide
- 12.001 eta 18.000 biztanle bitarteko udalerriek: 4 batzordekide
- 18.000 biztanletik gorako udalerriek: 5 batzordekide

Udalerrien biztanle kopuruak kalkulatzeko biztanleriari buruzko Estatistika Institutu Nazionalaren azken datu ofizialak hartuko dira kontuan.

2. Batzordekideak udal bakoitzeko osoko bilkurak hautatuko ditu, Hauteskunde-araubide Orokorraren Lege Organikoak udal bakoitzari zinegotzi-karguak esleitzeko ezarritako sistema erabilita. Berdinketa gertatzen bada, udal horretako hauteskundeetan boto gehien eskuratu duen zerrendak irabaziko du.

Titularrak karguari uko egin, zinegotzi kargua galdu, kargugabetua izan, edo kanpoan edo gaixorik dagoenerako, ordezkoak izendatuko dira. Egoera horiek aurrez eta idatziz justifikatu beharko dira. Ordezkarri hauek, titularren alderdi politiko berekoak izango dira.

Udalek batzordekideen eta horien ordezkoen izendapena jakinaraziko diote Udal Elkarteari, Zuzendaritza Batzordea eratzeko.

Zuzendaritza Batzordearen bilkura batera ordezko kide bat bertaratuko bada, 24 orduko aurrerapenarekin jakinarazi behar zaio gorabehera hori lehendakariari (idatziz).

3. Hautatua izan den ordezkari batek eta bere ordezkoak Zuzendaritza Batzordeko kide izateko karguari uko egiten badiote, Osoko Bilkurak beste ordezkari eta ordezko bat izendatuko ditu, gehiengo soilaren aldeko botoekin.
4. Batzar Nagusiak lehendakari hautatzen duen hautagaia aurrez udalak Zuzendaritza Batzordeko batzordekide izendatu baldin badu, horren ordezkoa bilakatuko da zuzenean Zuzendaritza Batzordeko kide titularra, eta udal horretako Osoko Bilkurak talde berekoa den ordezkoa izendatu beharko du.
5. Zuzendaritza Batzordea lehenengoz bilduko da Batzar Nagusia eratu eta bi hilabeteko epearen barruan.
6. Zuzendaritza Batzordeko kideen agintaldia amaituko da udalak berritzen direnean. Alabaina, jarraituko egingo dute, bitarteko izaerarekin, Udal Elkarteko zuzendaritza organoak eratu arte. Halaber, batzordekideen agintaldia amaituko da ordezkari hori kargugabetua bada, karguari uko egiten badio edo udaleko osoko bilkurako kide izateari uzten badio.

#### **12. artikulua:** Zuzendaritza Batzordearen bilkurak

1. Zuzendaritza Batzordearen bilkuretara batzordekide izango da Udal Elkarteko idazkaria, ahotsarekin baina hautespenik gabe. Halaber, beharrezko dela iritzitakoan mankomunitateko sail arduradunek ere parte hartu ahal izango dute, ahotsarekin baina hautespenik gabe. Zuzendaritza Batzordearen bilkurak ez dira publikoak izango.
2. Zuzendaritza Batzordea bi hilean behin bilduko da gutxienez, eta deialdia lehendakariak egingo du.

Ohiko bilkuren deialdia lehendakariak egingo du, gutxienez 3 laneguneko aurrerapenarekin.

3. Ezohiko bilkuren deialdia lehendakariak egingo du, bere kabuz, edo Zuzendaritza Batzordeko kideen laurdenak edo Udal Elkarte osatzen duten udaletako batek idatziz horrela eskatuta.
4. Ezohiko premiazko bilkura deituko du lehendakariak gaiaren larritasunak horrela eskatzen duenean.
5. Zuzendaritza Batzordearen funtzionamenduari buruz artikulua honetan esaten ez diren kontuan hartuko da, aurrena, Estatutu hauetako 9. artikuluan Batzar Nagusiarentzat aurreikusitakoa eta, gero, toki administrazioen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoa ezartzen duen araubidea.

#### **13. artikulua:** Zuzendaritza Batzordearen eskumenak

Zuzendaritza Batzordeak legeek udaleko osoko bilkurari ematen dizkieten eskumenak ditu, Estatutu hauen 10. artikulua ezartzen duena salbuespen delarik. Halaber, Zuzendaritza Batzordeari dagozkio Batzar Nagusiak eskuordetzen dizkion eskumenak (gehiengo absolutua eskatzen duten eskumenak izan ezik) eta lehendakariak eskuordetzen dizkionak.





Erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilarekin hartuko dira, erabakiaren izaera dela eta toki araubideak besterik ezartzen ez bada. Berdinketa gertatzen bada, bozketa berriz egingo da, eta, berriz ere berdinketa gertatzen bada lehendakariaren kalitate botoak erabakiko du.

### III. ATALA. LEHENDAKARIA ETA LEHENDAKARIORDEA

#### 14. artikulua: Lehendakaria eta lehendakariordea

1. Udal Elkarteko lehendakaria eta lehendakariordea izango dira Batzar Nagusiko eta Zuzendaritza Batzordeko lehendakari eta lehendakariorde.
2. Lehendakaria eta lehendakariordea izendatuko dira Batzar Nagusia eratzen den bilkuran, eta, bestela, edozein unetan, Batzar Nagusi horren agintaldia amaitu aurretik kargu hori hutsik gelditzen bada. Kargu horiek izendatzeko Estatutu hauetako 8.4 artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.
3. Aldi berean bi kargu horiek bete gabe gelditzen badira, lehendakari kargua hartuko du, bitarteko izaerarekin, Batzar Nagusiko kiderik zaharrenak, eta lehendakariordearena hurrengo zaharrenak.
4. Lehendakari eta lehendakariordeak kargua utziko dute udal hauteskunderen ondoren udalek izendatutako ordezkari berriekin Batzar Nagusiak egiten duen lehen bilkuran, lehendakari eta lehendakariorde berria hautatutakoan.
5. Lehendakariak Euskadiko bi hizkuntza ofizialak jakin behar ditu.
6. Lehendakariordeak lehendakariaren ordezkari izango du lehendakariaren kargua hutsik geratzen denean, kanpoan edo gaixorik denean, eta lehendakariak bere jarduna lehendakariordeari eskuordetzen dionean.

#### 15. artikulua: Lehendakariaren eskumenak

Lehendakariaren eskumenak dira legeek udaleko alkateari ematen dizkionak.

### IV. ATALA. ORGANO AHOLKU EMAILEAK

#### 16. artikulua: Lantaldeak

Zuzendaritza Batzordeak lantaldeak eratu ahal izango ditu, Udal Elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuak hobeto kudeatzeko.

Lantalde bat eratzeko erabakiak berariaz adieraziko ditu lantaldearen osaketa (Udal Elkarteko eta udaletako politikoei eta teknikoek hartuko dute parte) eta eginkizunak.

Lantaldeak dena delako gaiari buruzko azterketa eta koordinazio lanak egingo ditu, aginte-organoei proposamenak egingo dizkie eta gai horren zerbitzu eta akordioen jarraipena egingo du.

Lantaldeak gai horretan aditu diren elkarten laguntza eskatu ahal izango du, bileratan parte hartzeko nahiz behar diren txosten eta azterketak egiteko.



#### IV. KAPITULUA: LANGILEEN ERREGIMENA

---

**17. artikulua:** Udal Elkarteko langileak

Udal Elkarteko langileei aplikatuko zaie indarrean dagoen funtzio publikoko araubidea.

**18. artikulua:** Idazkaritza eta Kontuhartzaitza

Idazkari eta kontuhartzaile-diruzain gisa jardungo du Udal Elkarteak osatzen duten udal batekoa den eta estatu-gaikuntza duen funtzionario batek, kargu horrek dakartzan eginkizunekin.

Kargu hori ezin bada bete aurreko paragrafoan aurreikusitako eran, funtzio publikoko araubideak ezartzen dituen beste aukerak erabiliko dira.

## V. KAPITULUA. EKONOMIA ARAUBIDEA

---

### 19. artikulua: Aplikagarri den araubidea

Udal Elkarteko Ogasuna osatuko dute Estatutu hauetan aurreikusitako baliabideek, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenaren, markoaren barruan, batez ere III. Idazpuruaren eta hori garatzen duten xedapenen argitara.

### 20. artikulua: Ekonomia eta finantza baliabideak

Udal Elkarteak honako ekonomia eta finantza baliabideak izan ditzake:

- a) Udal Elkarteak osatzen duten udalen ekarpen arruntak.
- b) Bere ondasunek eragindako diru-sarrerak eta zuzenbide pribatuko bestelako diru-sarrerak.
- c) Dirulaguntzak.
- d) Kreditu eragiketek emandako diru-sarrerak.
- e) Udal Elkarteak eskaintzen dituen zerbitzu edo obren erabiltzaile edo onuradunek ordaindutako tasak, ekarpen berezi eta prezio publikoak.
- f) Bere eskumenen barruan jarritako isun eta zehapenek eragindako diru-sarrerak.
- g) Zuzenbide publikoko bestelako zerbitzuek eragindako diru-sarrerak.

### 21. artikulua: Mankomunitatearen finantzaketa

1. Udal Elkartearen funtzionamendurako beharrezkoak diren ekarpenak Udal Elkarteak osatzen duten udalek egingo dituzte. Udal bakoitzaren ekarpena finkatuko da dituen biztanleen arabera, Udal Elkarteko biztanle guztiekiko alderatuta, eta kalkulatu da Estatistika Institutu Nazionalak argitara emandako biztanleriari buruzko azken datu ofizialen arabera.

Horretarako, mankomunitateari egin behar dizkioten ekarpenak beren aurrekontuetan esleitu behar dituzte udalek. Ekarpene horiek hiru hilero egingo dira, Udal Elkarteak faktura egin eta helarazi ondoren. Nolanahi ere den, ekarpen ekonomiko horiek ordaindu beharreko ordainketatzat eta lehentasunetzat hartu behar dira ondorio guztietarako. Udal batek ez badu gorago ezarritakoa betetzen, apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak arautzen dituenaren, 15. artikulua ezarritakoaren arabera jokatu da.

2. Zerbitzuak eskaintzeagatik ezartzen diren tasak berberak izango dira Udal Elkarteak osatzen duten udalerririk guztietan. Horri dagokionez, ordenantza fiskaletan eta Udal Elkartearen eta udalen artean sinatutako lankidetzaren hitzarmenetan ezarritakoen arabera jokatu da.

### 22. artikulua: Aurrekontuaren eta kontabilitatearen araubidea

Udal Elkarteari aplikagarri zaizkio abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak (eta hori garatzen duten xedapenek) aurrekontuei eta gastu publikoari buruz emandako xedapenak.

Halaber, Udal Elkarteak jarraituko dio araubide horrek ezartzen duen kontabilitate publikoko erregimenari eta kontuak eta kudeaketa ekonomikoa kontrolatu eta fiskalizatzeko araubideari.



## **VI. KAPITULUA: MANKOMUNITATEA HANDITZEA, BANANTZEA ETA DESEGITEA**

---

### **23. artikulua:** Mankomunitatea handitzea

Udal Elkartean beste udalerrri bat sartzeko honako prozedurari jarraitu behar zaio:

1. Udal Elkarteko kide izan nahi duen erakundearen akordioa, osoko bilkuraren gehiengo osoarekin onartua.
2. Udal Elkarteak, Zuzendaritza Batzordearen bidez, txostena egingo du eskariaren bideragarritasunari buruz eta, bideragarri joz gero, Udal Elkartean sartzeko baldintzak zehaztuko ditu. Jarraian, Batzar Nagusiak bidezko dena erabakiko du, bertaratuen gehiengoaren alde botoarekin.
3. Udal Elkarteko kide izateko erabakia jakinarazi ondoren, kide berriak Udal Elkarteko Estatutuak onartu eta Udal Elkarteko kide anitzeko organoetako udal horren ordezkariak izendatuko ditu.
4. Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoa gauzatu ondoren, Estatutuak aldatzeko prozedurari ekingo zaio, 27. artikuluko hiru, lau eta bosgarren paragrafoetan ezarritakoaren argitara.

### **24. artikulua:** Udalerrriak banantzea

Udalerri batek bere borondatez Udal Elkarteko kide izateari uzteko, erabaki hori hartu behar du legez ezarritako eran, eta Udal Elkarteari jakinarazi behar dio. Jakinarazi ondoren udalerrri hori banandu egin dela iritziko zaio eta bi erakundeen arteko harreman ekonomikoak likidatzeari ekingo zaio, honako prozedurari jarraituz:

1. Udal Elkartearen eta udalaren arteko egoera ekonomikoa erregularizatu egingo da. Udal Elkarteak helburu zehatzetarako eskuratutako dirulaguntza eta bestelako diru-sarreretatik banandu den udalari legokiokeen kopurua gerakinetik hartuko da.
2. Banandutako udalak ordainduko ditu banantzeak eragindako gastuak eta Udal Elkarteak bere kargura hartutako pasiboen zatia. Kitapenaren kontua Udal Elkarteko Batzar Nagusiak onartu beharko du, bertaratutako gehiengoaren aldeko botoekin.
3. Kitapenaren proposamena, banantzearen baldintzak, eta dagokion Estatutuen aldaketak honako arauak betez egingo dira:
  - a. Batzar Nagusiaren onarpena, bertaratutako batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.
  - b. Erabakia jendaurrean erakusgai jarriko da hilabetez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta mankomunitatea osatzen duten udaletako iragarkien tauletan iragarkia jarrita. Horren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak txostena egingo du, hilabetezko epearen barruan. Epe hori igaro eta Foru Aldundiak txostenik egin ez badu, txostena aldekoa dela iritziko zaio.
  - c. Mankomunitateko udalen gehiengoak berrestea, mankomunitatea eratzeko eskatutako quorumekin onartutako udal batzarraren erabakiaren bidez.
  - d. Estatutuak, oso osorik, aldaketak barne, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Kide bat banantzeko eginbideek ez dute Udal Elkartearen ohiko jarduera oztopatu eta trabatuko.

### **25. artikulua:** Udal Elkarte desegitea

Udal Elkarte desegiteko arrazoi dira honakoak:

1. Ezarritako helburuak bete ezin izatea.
2. Kide bat ez beste guztiak banantzea.
3. Lege-xedapen batek horrela agintzea edo interes publikoaren aurka aritzea.
4. Batzar Nagusiko kideen gehiengo osoaren erabakia eta 27. artikulua 3, 4 eta 5. puntuetan estatutuak aldatzeko ezarritako jardunbidea betetzea.

**26. artikulua:** Likidatzeko prozedura

1. Desegiten bada, mankomunitateak likidatzeko organo gisa gorde egingo du bere nortasun juridikoa Batzar Nagusiak bere ondasunak likidatu eta banatzeko erabakia hartzen duen arte.
2. Honako prozedurari jarraituko zaio:
  1. Batzar Nagusiak mankomunitatea desegiteko erabakia hartu eta likidazioa egiteko batzorde bat eratuko du.
  2. Batzorde horrek Udal Elkartearen ondasun eta eskubideen inbentarioa (baliabideak, kargak, zorrak...) eta Udal Elkarteko langileen zerrenda egingo ditu. Kitapena eta banaketa egiteko kontuan hartuko dira udalerrri bakoitzak batez beste Udal Elkarteko kide izandako azken 5 urteetan izandako biztanleria eta Udal Elkarteari egindako ekarpenak.
  3. Inbentarioa egin ondoren, likidazioa bideratzeko batzordeak Batzar Nagusiari Udal Elkartearen ondasun, eskubide, zor eta langileak kide diren udalen artean banatzeko proposamen bat egingo dio, eta hori guztia bideratzeko egutegia finkatuko du.
  4. Likidazio proposamenak bertaratutako batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoa jaso beharko du.
  5. Likidazioaren proposamena jendaurrean erakusgai jarriko da, 27.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.
  6. Mankomunitatutako udal gehienek onartu behar dute proposamen hori, udalbatzaren osoko bilkuraren bidez, udalbatzako legezko kide guztien gehiengo absolutuarekin.
  7. Likidazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara.

## VII. KAPITULUA: ESTATUTUEN ALDAKETA

---

### 27. artikulua: Estatutuen aldaketa

Estatutuak aldatzeko honako prozedurari jarraituko zaio:

1. Estatutuak aldatzeko ekimena lehendakariarena edo Batzar Nagusiko kideen herenarena izango da.
2. Batzar Nagusiak Estatutuen testu berria onartuko du, bertaratutako batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.
3. Erabakia jendaurrean erakusgai jarriko da hilabetez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta mankomunitatea osatzen duten udaletako iragarkien tauletan iragarkia jarrita. Horren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak txostena egingo du, hilabeteko epearen barruan. Epe hori igaro eta Foru Aldundiak txostenik egin ez badu, txostena aldekoa dela iritziko zaio.
4. Mankomunitatutako udalen gehiengoak Estatutuak onartuko ditu. Onarpena osoko bilkurak emango du legezko kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin.
5. Estatutuak, oso osorik, aldaketak barne, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.



## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

---

Une honetan lehendakari, lehendakariorde eta Zuzendaritza Batzordeko batzordekide karguak dituzten kideek kargu horietan jarraituko dute, eta, beraz, Zuzendaritza Batzordea osatuko da lehendakari, hiru lehendakariorde, Aia, Getaria, Orio eta Zumaiako Udaletako bina ordezkari eta Zarauzko Udaleko 3 ordezkariarekin.

11. artikuluko lehen eta bigarren paragrafoetan xedatutakoa indarrean jarriko da hurrengo udal hauteskundeen ondoren udaletako osoko bilkurak berritzen direnean.

## **AZKEN XEDAPENA**

---

Estatutu hauek indarrean jarriko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oso osorik argitaratu eta hurrengo egunean, legeak xedatutakoaren arabera izapidetu ondotik.

Horrekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiari helaraziko zaizkio, Gipuzkoako Toki Erakundearen Foru Erregistroan erregistratzeko. Halaber, dagokion jakinarazpena helaraziko zaio Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta Estatuko Administrazioari.